

35. KONPASA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

CAROLINA: 35ean huts egin dut. Bai. Egia da. 35ean huts egin dut. Hori al da une honetan esan behar didazun guztia? Badakit ezer gutxi esan nahi duela zuretzat, baina... ikusi duzu zer gertatu den emanaldiaren ondoren? Konturatu al zara hitz egitera etorri den jende horretan? (*Ahotsa beheratzen, sekretu bat azalduko balu bezala*) Ni zoriontzen ari ziren. Zer da hori? Zoriondu? (*Berak erantzuten du*) Oso gauza arraroa da. Batzuek esaten dute: "Zer ondo egin duzun", beste batzuek: "Izugarri gustatu zait", batzuek esaten dizute hunkitu egin direla zu entzuten, eta norbaitek onartzen du inbidia duela zu pianoa horrela jotzeagatik. Ez esan partitura konpasetan banatuta dagoela, pieza osoa tonalitate bati lotuta dagoela, tempo bati, eta zehaztasun osoz interpretatu behar dela, arauari zehatz-mehatz jarraituz. Besterik gabe, gustatu zaie... ez dudalako gaizki jo. Ez dut batere gaizki jo. Nahiko ondo jo dut. Ondo jo dut, oso ondo... Eta une horretan, zorionak ematen dizkizutenean, 35. konpasean huts egin duzula esatea bururatzen bazaizu... ezetz erantzuten dizute, ukatu egiten dute!, esaten dizute ez dela akatsik izan, pieza primeran jo duzula. Eta denborarekin, ez eztabaidatzen ikasten duzu... Eztabaidatzea haien sentsibilitatea zalantzan jartzea bezalakoa baita, euren sentimenduak ulertzen ez dituztela esatea bezala da. Eta haiek ondo dakite zer sentitu duten, ez dute musikaz jakingo, baina badakite zer sentitzen duten. Ez dago musika jakin beharrik sentitzeko. Mundu guztiak sentitzen du. "35ean huts egin duzu". Hori da esan behar didazun guztia? Oso ondo. Bihar, ikasgelan, landuko dugu. Partitura mila aldiz errepikatuko dut, zuretzako bikain jo arte. Gaur, haientzat, primeran jo dut. Eta, orain arte, gau perfektua zen. Zurekin hitz egin dudan arte.

Ele txera
Munduko zabaldua



OHARRAK: CAROLINA piano-ikaslea da. Gogor lan egiten du. Gaur gauean jendaurrean jo du lokal batean. Emanaldia amaitzean, denek zoriondu dute. Bere pianoko irakasleak, ez. Irakasleak jakinarazi dio akats bat egin duela 35. konpasean. Eta horrek min egin dio **CAROLINARI**. Ederki asko daki zein diren bere irakaslearen kalitate-estandarrik, eta badaki akats txiki bat egin duela 35. konpasean. Bere buruari asko eskatzen dio **CAROLINAK**. Baina une horretan tratu beroagoa, gizatiaragoa espero du. Gau hori garrantzitsua zen beretzat. Lagunak, senideak... ikustera joan dira. Agian,

35. KONPASA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

irakaslea lagun gisa hartzea espero zuen. Eta iruzkin horrekin, irakasleak distantziak markatu ditu. Hor, etsipena.

CAROLINAk tristeziak ematen du hitzaldia. Nolabait, lagun bat galdu baitu.

Ele txera
Munduko zabaldua

